



LIZENTZIAK ETA BAIMEN BATZUK DIRELA-ETA

Behin baino gehiagotan harritu gaituzte lankideek esanez baimen hau edo bestea denik ere ezjakitun direla. Bada, gure lizentziak eta baimenak hartzeko moduak 2010eko abenduaren 10eko ebazpenean arautzen dituzte. Atxikita bidaltzen dugu agiria eta EIZUn ere topatuko duzue. Era berean ahaidetasun-maila agertzen den taula ere eransten dugu.

Oso komenigarria da zeintzuk baimen dauzkagun ezagutzea, gertatu izan da-eta sailean informazio ez zuzena eman izana.

1.- SENIDEAK ARTATZEKO 50 ORDU URTEAN

Ebazpenaren 16. artikulua arautzen du. Errekuperatu behar ez diren 50 orduko poltsa da eta **gaixotasun kronikoa edo mugitzeko zailtasuna duten bigarren mailako ahaideak** zaintzeko baimena da.

Hoberena da baimena onartua edukitzea nahiz eta berehala erabiltzeko asmorik ez izan. **Gure gomendioa hau da: guraso zaharrak dauzkaten langileek eska dezatela baimen hau.**

Gurasoak esan dugu horixe baita kasurik ohikoena, baina, berriro diogu, bigarren mailarainoko senideak ere hartzen ditu. Idatziz aurkeztu behar den eskabidearekin batera erantsi behar da medikuak egindako txostena zeinek egiaztatzen duen senideak gaixotasun kronikoa edota mugitzeko zailtasuna duela.

Urte naturaleko 50 ordu dira; hau da, esaterako baimena apirilean onartuz gero, ordura arteko denbora zatiari dagokion proportzioa kenduko zaio ordu kopuru horri. Urtero berriro behar da eskabidea. Lanaldi murriztua egitekotan, 50 orduak proportzioan gutxituko dira.

2.- BETEBEHAR SAIHESTEZINAK EGITERA JOATEKO SENIDEAK LAGUNTZEA

Ebazpen berean 14garren artikulua arautzen du izapide zehatzak egite aldera senideak laguntzeko baimena. Aurrekoan bezala, gaixotasun kronikoa edo mugitzeko zailtasuna duten ahaideak hartzen dira aintzat. **Nortasun agiriaz eta pasaporteaz hitz egiten du testuak, baldin eta lanorduz kanpo egitea ezinezkoa balitz; eta baita epaitegien, komisarien eta beste administrazio -organoen zitazioak ere.** Adibideren bat jartzearren: bizi-agiriaren ziurtagiria erregistro zibilera joatea; edo gizarte zerbitzuetara joan beharra.

Baimen hau jende askok ez omen du ezagutzen eta, gure ustez, oso aproposa izan daiteke 1 atalean aipatzen diren moduko senideak zaindu behar diren kasuentzat (odol edo ezkontza bidezko bigarren ahaidetasun-mailako senideak).

AHAIDEEN GAIXOTASUN LARRI EDO OSPITALERATZEAGATIKO BAIMENA

Ebazpenaren 8. artikulua. Baimen erabilienetako bat izanik, ezagunagoa da hau, baina ondorengoak langile guztiek ez dakizkitez:

- 30 egun igaro eta gero, aurrekoa bezalako baimena berriro hartzeko eskubidea daukagu;
- Baimena luzatzeko aukera: 3 hilabeteko epean errekuperatu beharreko 3 egun.

Pentsatzen dugu garrantzitsua dela zuen artean hau guztia komentatzea, batez ere ez dadin inor geratu dagokion eskubidea hartu gabe.